

GRADU AMAIERAKO LANARI BURUZKO ARAUTEGIA

Ikastegiko Batzarrak onartua 2019ko otsailaren 14an
Ikastegiko Batzarrak aldatua 2020ko martxoaren 28an
Ikastegiko Batzarrak aldatua 2020ko uztailaren 14an
Graduko Batzordeak onartua 2020ko irailaren 10ean
Ikastegiko Batzarrak aldatua 2021eko abenduaren 3an -6.artikulua
Ikastegiko Batzarrak aldatua 2023ko maiatzaren 9an
Ikastegiko Batzarrak aldatua 2024ko martxoak 13an

Aurkibide

I.	Sarrera.....	1
II.	Gradu Amaierako Lana zertan den	1
III.	Izen ematea, matrikula eta deialdiak.....	2
IV.	GRALaren tutorea.....	2
V.	GRALaren orientazioa eta jarraipena	3
VI.	Garapen Iraunkorreko Helburuei (GJH) eta inplikazio etikoei buruz sartu beharreko edukiak	3
6.1.	Garapen Iraunkorreko Helburuei (GJH) buruzko edukiak	3
6.2.	Inplikazio etikoak.....	3
VII.	GRALa entregatzea.....	4
VIII.	GRALa ebaluatzeko prozedura.....	4
8.1	Ebaluazio epaimahaiak	4
8.2	Ahozko aurkezpena epaimahaiaren aurrean	4
8.3	GRALaren ebaluazioa eta kalifikazioa	4
IX.	GRALak artxibatzea eta kontsultatzea.....	5
X.	Aztertzea eta hobetzea	5
XI.	GRALaren konfidentzialtasuna	5
ERANSKINAK.....		6
1.	ERANSKINA: Konfidentzialtasun eskaera.....	7
2.	ERANSKINA: Konfidentzialtasun konpromisoa gradu amaierako laneko epaimahaikideentzat.....	8
3.	ERANSKINA: Konfidentzialtasun konpromisoa gradu amaierako lanaren defentsara doan publikoarentzat	9
4.	ERANSKINA: GRALen matrikulazioari eta defentsari buruzko arautegia. Negozioen Kudeaketako eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu Bikoitza.....	10
5.	ERANSKINA GRALaren plagioari buruzko adierazpenaren ereduak	12

I. Sarrera

Arautegi hau UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartutako "Gradu Amaierako Lana egin eta defendatzeari buruzko Arautegia" dokumentuaren garapenetik sortu da, Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateko tituluen ezaugarrietara egokitua (Gizarte Langintzako Gradua, Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua eta Negozioen Kudeaketako eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu Bikoitza).

Negozioen Kudeaketako eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu Bikoitzean bi GRAL egin behar dira: Negozioen Kudeaketako Gradukoa eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradukoa. GRAL bien matrikulazio eta defentsarako irizpideak Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatekoak izango dira, hau da, arautegi honetan jasotzen direnak, gradu bikoitzeko Batzorde Mistoak onartutako arautegi espezifikotan zehazten den bezala (fakultateko arautegi honi erantsi zaio).

Arautegi honen oinarri dira Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako eta Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolako gradu amaierako lanen antzinako arautegiak, eta bi arautegi horiek berrikusi, egokitu eta bateratuta osatu da. Bestalde, 2019/2020 ikasturtean Negozioen Kudeaketako eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu Bikoitza gehitu zitzaizen fakultatean ematen diren titulazioei, eta hori ere hartu dugu aintzat. Arautegi bateratu honek GRALari buruzko UPV/EHUko arautegi orokorrak titulazio guztietarako zehaztutako nahitaezkoak biltzen ditu.

II. Gradu Amaierako Lana zertan den

Gradu Amaierako Lana (GRALa aurrerantzean) ikasleak era autonomoan egiten duen lan bat da, gainbegiratze akademiko baten pean (tutore batekin edo gehiagorekin) eta bertan, ikasleek graduoko ikasketa aldiari jasotako prestakuntza gaiak eta lortu dituzten ahalmen, gaitasun eta trebetasunak bildu eta garatuko dituzte.

Ikasketa planetan GRALa azken moduluko irakasgaia da, nahitaezkoa, eta lan akademiko-profesionala da. Horrela, bada, ikasleak, lan horren bidez, bere ezagutza, sormen gaitasuna eta originaltasuna erakutsi behar ditu, eta ikaslearen heldutasunaren erakusle da lan munduan sartu aurretik. Lanean elementu teorikoak, metodologiakoak, teknikoak eta/edo praktikoak bildu behar dira, guztiak kasuan kasuko ikasten arlokoak.

Irakasgai honek lotura estua du gaitasun profesionalen garapenarekin, eta ikasleek oinarrizko gaitasunak eta ezagutzak eskuratzen dituzte, lanbidean aritzeko eta ikerketa egiteko gizarte langintzan, lan harremanetan edo negozioen kudeaketa+lan harremanen arloan. Analisi, sintesi eta arrazoibide kritikorako gaitasunak lortzeko bide da, eta sormena indartu eta informazioaren kudeaketa eta IKTen aplikazioa hobetzen da.

Edozelan ere, ikasle bakoitzaren lan planean kontuan hartuko dira GRALaren Gidaliburuan zehaztutako jarraibideak.

III. Izen ematea, matrikula eta deialdiak

GRALaren matrikula formalizatzeko, beharrezkoa izango da ikasketa plana amaitzeko behar diren irakasgai guztiak matrikulatuta edukitzea, eta dagokion matrikula epean egin beharko da. Matrikula hori ezinbesteko baldintza da tutorea esleitzeko.

Gizarte Langintzako Graduan eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduan, ikasleek GRALa defendatu ahal izango dute behin egiaztatzen dutenean gradua amaitzeko enborreko edo nahitaezko 12 ECTS kreditu baino ez zaizkiela falta, kontuan hartu barik hautazko kredituak eta GRALari dagozkionak.

Negozioen Kudeaketako + Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu Bikoitzeko GRAL bien defentsarako eskaria egiteko baldintza izango da ikasleari gehienez nahitaezko 18 kreditu falta izatea gradu bikoitza amaitzeko, bi graduetako GRALei dagozkien kredituak kontuan hartu barik (12 eta 6 hurrenez hurren), Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduan eskatzen denarekin (12) proportzioan.

Gradu Amaierako Lana defendatu ahal izango da, baldin eta ikasleari gradua amaitzeko 12 ECTS nahitaezkoak edo tronkalak baino gehiago falta ez zaizkiola egiaztatzen bada, hautazko kredituak eta Gradu Amaierako Lanekoak kontuan hartu gabe. Matrikulak, ikasturte bakoitzean bi deialdi ofizialetara aurkezteko eskubidea ematen du; horretarako, ikasleek urtero ezartzen diren hiru deialdien artean aukeratu ahal izango dute; deialdi horien datak behar bezala argitaratuko dira ikasturtearen hasieran.

Matrikulatu bada, baina dagokion ikasturtean Gradu Amaierako Lana defendatzen ez badu, ikasleak berriro egin beharko du matrikula ikasturte berrian, ikastetxeak ezarritako epean.

IV. GRALaren tutorea

Saileko irakasleek beren gain har dezaketen kreditu kopurua proportzionala izango da sailak tituluan ematen duen ECTS kreditu kopuruarekiko. GRALen tutoreak ikastegian irakasten duten irakasleak izango dira, ahal izanez gero.

Ikasleei gaia eta tutorea esleitzeko zaizkie matrikulatzen direnean edo matrikula prozesua amaitu bezain laster. Horretarako, titulazio bakoitzean irakaskuntza duten sailek irakasle tutoreen eta gaien zerrenda helarazi beharko diote idazkaritzari, matrikulazio epea hasi baino lehen, titulazio bakoitzean sail bakoitzari dagokion kuota proportzionala kontuan hartuta, graduako eta gradu bikoitzeko ikasketa planean duten pisuaren arabera.

Sailek bermatuko dute bi hizkuntza ofizialetan asetzen dela lanen eskaria.

Epea amaituta, ikastegiak behin betiko zerrenda argitaratuko du, GRALa egingo duten ikasleen izen-abizenekin eta esleitutako tutoreekin. Prozesu horretan, kontuan izango dira matrikulan adierazitako hizkuntza eta GRALen zuzendaritzan irakasle bakoitzari egokitutako ikasle kopurua. Prozesu hori behin bukatuta, ikaslea harremanetan jarri beharko da tutorearekin.

V. GRALaren orientazioa eta jarraipena

Ikasleen lan autonomia funtsezkoa da prozesu honetan. Hala ere, ezinbestekoak dira gainbegiratzeko edo tutoretza indibidualak, ikasleen ikaskuntza autonomia laguntzeaz, sendotzeaz eta babesteaz gainera, orientatu ere egiten dutelako, eta informazio eman, lanak gainbegiratu, urratsak eta zailtasunak kontrastatu.

Argibideren bat ematearren, prozesuak honako hauek bildu beharko ditu, gutxienez: hasierako saio bat, lanaren helburuak eta prozesua adosteko eta hasierako zalantzak argitzeko; bi jarraipen saio, helburuak zer neurritan betetzen ari diren egiaztatze eta arazoak konpontzen laguntzeko; eta azken saio bat, lana berrikusteko eta defentsa eskaria adosteko. Ikasleek, gainera, beren GRALa zuzentzen duen irakasleak urtean ezarritako tutoretza ordutegia erabili ahal izango dute.

Tutoretzarako, ikasleek kontuan izango dituzte ikastegiak onartutako egutegi akademikoko eskolaaldiak, eta kontuan izango dute ere abuztua ez dela eskola garaia.

VI. Garapen Iraunkorreko Helburuei (GJH) eta inplikazio etikoei buruz sartu beharreko edukiak

6.1. Garapen Iraunkorreko Helburuei (GJH) buruzko edukiak

GrADu Amaierako Lan guztiek, testuaren atal espezifiko gisa, gutxienez 200 hitzeko hausnarketa bat izango dute, egindako lana Garapen Iraunkorreko Helburuak osatzen dituzten printzipio eta balio demokratikoekin eta lan-esparruarekin erlazionatuz, eta/edo horien aurrean ikuspegi kritiko bat planteatuz.

Horretarako, dagozkion irakaskuntza-gidetan ezarritako jarraibideei jarraituko zaie.

6.2. Inplikazio etikoak

Zuzendaria arduratuko da GrALak gizakiekin ikerketa-jardueraren bat inplikatzen duen kasuak eta haien datuak identifikatzeaz, eta ikasleak, bere aholkularitzarekin, inplikazio etikoen garrantzia baloratzen duela eta lan akademikoetarako indarrean dauden jarraibide espezifikoak betetzen dituela zainduko du. Jarraibide horiek UPV/EHUko Ikerketa eta Irakaskuntzako Etika Batzordearen webgunean daude.

Kasu horietan, ikasle bakoitzak, GrALa defendatzeko beharrezko dokumentazioarekin batera, Etika Batzorde horren jarraibideetan ezarritako dokumentazio gehigarria aurkeztu beharko du.

Lanek beste jarduera akademiko batzuetatik eratorritako informazioa erabiltzen badute (adibidez, praktikak, prestakuntza duala, etab.), soilik pertsonen buruzko informazioa erabiliko dute akademikoki justifikatuta badago, eta, eginez gero, modu anonimizatuan egin beharko da, inplikatutako pertsonak identifikatzen ez direla bermatuz. Ez da beharrezkoa

izango dokumentazio gehigarria aurkeztea, baina bai esplizituki adieraztea lanean erabilitako informazio-iturria eta anonimizazioa nola bermatu den.

VII. GRALa entregatzea

Lana amaitutakoan, ikasleek titulazioaren gidan zehazten den prozesuari jarraituz entregatuko dute, indarreko egutegian ezarritako datetan. Era berean, lana egiteko prozesuaren ebaluazio dokumentua entregatuko zaio epaimahaiari, tutoreak sinatuta.

GRALa entregatzen dutenean, ikasleek plagioari buruzko adierazpen sinatu bat ere aurkeztu beharko dute, arautegi honi erantsitako ereduaren arabera egina.

VIII. GRALa ebaluatzeko prozedura

GRALa gradu amaierako proiektuaren txostena egitea eta ahoz nahiz idatziz aurkeztea da. Ahozko defentsa, presentzialki ebaluazio epaimahai baten aurrean egiten da.

8.1 Ebaluazio epaimahaiak

Ebaluazio epaimahaiak tituluan irakasten duten irakasleek osatuko dituzte, ahal izanez gero.

Epaimahai bakoitza hiru pertsonak osatuko dute (epaimahaiburua, idazkaria eta epaimahaikide bat), eta GRALaren tutorea ez da epaimahaiko kide izango. Kide batek epaimahaia utzi behar izanez gero, prest izango da haren ordezkoa.

Epaimahai kopuruaren antolakuntza eta haien osaera GRALen koordinatzailearen esku egongo dira. Epaimahaiak ikasturteka eratuko dira, eta matrikulan adierazitako hizkuntzan epaituko dituzte GRALak.

8.2 Ahozko aurkezpena epaimahaiaren aurrean

GRALa ahoz defendatuko da, ekitaldi publikoan, eta honako hauek azalduko dira: GRALaren motibazioa eta justifikazioa, lanaren helburuak, erabilitako metodologia, edukiaren sintesia eta ondorio orokorrak.

Ahozko aurkezpena amaitzean, epaimahaiak ikasleari eztabaidatzeko aukera izango du. Ikasleak epaimahaiko kideen galderei, argibide eskeei, iruzkinei eta iradokizunei erantzungo die.

8.3 GRALaren ebaluazioa eta kalifikazioa

Ikasleak aurkezpena behin amaituta, eta kontuan izanda tutorearen txostena, epaimahaiak kalifikaziori buruzko hausnarketa egingo du eta nota jarriko du (zenbakiz adierazia).

Kalifikazioa 0tik 10era bitarteko zenbakizko eskalan emango da, hamartar bakarrarekin, eta dagokion kalifikazio kualitatiboa erantsiko zaio. 9 kalifikazioa edo handiagoa duten ikasleei "Ohorezko matrikula" eman ahal izango zaie, haien kopurua deialdian gaian matrikulatutako

ikasleen % 5etik gorakoa izango ez bada ere. GRALen koordinatzailea arduratuko da hori horrela izateaz. Portzentajea gainditzen bada, nota altuenak dituzten ikasleei emango zaie ohorezko matrikula.

Ebaluazioa gainditzen ez bada, lana hobetzeko gomendioak erantsiko zaizkio txostenari, eta ikasleari helaraziko zaizkio (kopia bat GRALaren tutorearentzat). Plagioak eta/edo adimen artifizialaren errekurtsoen erabilera desegokiak, suspentsoa eragingo du automatikoki.

Uko egiten bazaio deialdi batean defentsa eskubideari, "Aurkezteke" kalifikazioa emango da.

GRALen azken kalifikazioen berrikuspen edo erreklamazioei dagokienez, Unibertsitatearen ebaluazio arautegia erabiliko da. Dena dela, kasu honetan, ebaluazioa epaimahaiak egiten duenez, lehen berrikuspena epaimahai berak egingo du, eta ikastegiko Erreklamazio Batzordeak, ondoren. Ebazpen horri gorako errekurtsua jarri ahal izango zaio, unibertsitateko errektorearen aurrean.

GRALen kalifikazioek urriaren 31 baino lehen agertu beharko dute gaian matrikulatutako ikaslearen espedientean.

IX. GRALak artxibatzea eta kontsultatzea

Ikastegiak GRALak artxibatuko ditu, euskarri informatikoan. Egilea, gaia eta ikasleak sinatutako adostasuna adieraziko dira, bai eta lanaren egiletzarekiko eta, aipua egiteko baliatuko balitz, erreferentzia bibliografikoetako aipamenekiko errespetua ere.

GRALa Jabetza Intelektualeko Legeak babesten du, eta, beraz, jabetza intelektualaren eskubideen titulartasuna ikaslearena izango da.

X. Aztertzea eta hobetzea

Ikasturtea amaitzean, GRALen koordinatzaileak txosten bat entregatuko dio GRALen batzordeari, GRALen defentsa eta ebaluazio prozesuaren alderdi garrantzitsuenekin:

- Matrikulatutako eta defendatutako GRAL kopurua.
- Irakasleen zerrenda eta esleitutako ikasleak
- Ebaluazio, arrakasta eta errendimendu tasak.
- Prozesuan izandako gorabeherak.
- Oharrak.
- Hobetu beharrekoak.

Txosten hori oinarri hartuta, GRALen batzordeak aldaketak proposatu ahal izango ditu GRAL arautegian, ikastegiko batzarraren aurrean.

XI. GRALaren konfidentzialtasuna

UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegiko 2. atalaren arabera, ikasleak GRALa egiten badu praktikak edo prestakuntza duala egiten ari den enpresa edo erakundearen,

defentsarako eskaria egitean ikasleak eta tutoreak eskatu ahal izango dute lana konfidentzialtzat jo dadin, eta berdin egin ahal izango da datuen konfidentziasuna eskatzen duen enpresa edo erakunde baten datuekin egiten den edozein GRALetan. Eskaria fakultateko dekanuari zuzendu beharko zaio, arrazoia azalduta eta ikasleak eta tutoreak sinatuta.

Fakultateko idazkaritzan behar bezala identifikatuko dira konfidentzialak diren GRALak. Lanaren kopia jaso aurretik, eredu ofizialaren arabera konfidentziasun agiria sinatu beharko dute Ebaluazio Epaimahaiko kideek. Defentsa egin ondoren, epaimahai ebaluatzaileko kideek jaso dituzten GRALaren aleak suntsituko dituzte. Fakultateko Idazkaritzako Administrazio eta Zerbitzuetako langileek ere konfidentziasun betebeharra bete beharko dute GRALei dagokienez. Idazkaritzan utzitako kopia ez zaio inori emango, eta ez da ADDI gordailuan sartuko, ezta horrelako lanak euskarri digitalean zabaltzen dituen beste ezein gordailutan ere.

GRALa konfidentziala denean, defentsa ateak itxita egin dadila eskatu ahal izango da, edo defentsan parte hartzen duten pertsona guztiek konfidentziasun agiri bat sina dezatela, eredu ofizialaren arabera.

ERANSKINAK

1. ERANSKINA: Konfidentzialtasun eskaera

Izen-deiturak

Helbidea (Kalea, zk., posta kodea, herria)

Telefonoa/Teléfono.....**NANa/DNI**.....

Gradia.....**Ikasturtea Académico**:.....

GRALaren izenburua:

.....

.....

GRALaren tutorea:

Konfidentzialtasun eskaeraren zergatia

.....

.....

.....

GRALaren tutorearen O.E.

Sin:.....

HONAKO HAU ESKATZEN DUTE: GRALaren konfidentzialtasuna onar dadila.

Leioa,(ko)arena

Ikaslearen izenpea

.....

LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA FAKULTATEKO DEKANOA

2. ERANSKINA: Konfidentzialtasun konpromisoa gradu amaierako laneko epaimahaikideentzat

Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateko irakaslearen datuak:

Izen-deiturak: _____

Saila: _____

Goiko datuak ditudan honek honako hau adierazten dut:

LEHENIK.- Epaimahaikide gisa proposatua izan naizela honako izenburua duen Gradu Amaierako Lana ebaluatzeko:

Lanaren egilearen izen-deiturak:

BIGARRENIK.- Lan horren zenbait atal edo lana bere osotasunean konfidentzialtzat jo direla.

Aurrekoari jarraituz,
hitzematen dut

LEHENIK.- Isilpean gordeko dudala lanean konfidentzialtzat jo den informazio oro, hala nola –baina ez bakarrik–, deskribapenak, ereduak, irudiak, jabetza eta sekretu komertzial eta profesionalak, eta jabetza industrialtzat edo intelektualtzat jo daitekeen edozein informazio.

BIGARRENIK.- Informazio hori lan baten defentsa ebaluatzeko epaimahaikide gisa eman zaizkidan zereginetarako soilik erabiliko dudala; horretarako, honako hauek egingo ditut:

a) informazioa babestuko dut beste inork eskura ez dezan, guztiz isilpean gordez eta arreta handienaz zainduz, neure informazio isilekoa balitz bezala.

b) Ez diot informazio hau inori emango, informazioaren igorleak aurrez horretarako baimena berariaz eta idatziz eman ez badu, salbu eta:

1. Hartzaileak idatziz eta bere datuekin froga badezake aurrez informazio hori ezagutzen zuela legezko beste bideren bati esker.

2. Informazioa publikoa bada edo publiko egiten bada hartzailearen ekintza edo omisioekin zerikusirik ez duen bide batetik.

3. Hartzaileak informazio hori legez jaso badu informazioaren igorlea ez den beste bide batetik.

Leioa, 20__ (e)ko _____ aren _____ (a)

Izpta.: _____

3. ERANSKINA: Konfidentzialtasun konpromisoa gradu amaierako lanaren defentsara doan publikoarentzat

Izen-deiturak: _____

NAN zk.: _____

Gradu Amaierako Lanaren izenburua: _____

Lanaren egilea: _____

Goiko datuak ditudan honek aipatutako Gradu Amaierako Lanaren defentsan izan naiz eta honako hau

HITZEMATEN DUT

Isilpean gordeko dudala lanean konfidentzialtzat jo den informazio oro, hala nola –baina ez bakarrik–, deskribapenak, ereduak, irudiak, jabetza eta sekretu komertzial eta profesionalak, eta jabetza industrialtzat edo intelektualtzat jo daitekeen edozein informazio.

Leioa, 20____(e)ko_____aren_____ (a)

Izpta.: _____

4. ERANSKINA: GRALen matrikulazioari eta defentsari buruzko arautegia. Negozioen Kudeaketako eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu Bikoitza.

Negozioen Kudeaketako eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu Bikotzeko Batzorde Mistoak erabaki du arautegi hau onartzea, aipatu gradu bikoitzeko ikasleen GRALen matrikulazioa eta defentsa arautzeko, honako puntu hauetan oinarrituta:

- Gradu bikoitzaren kudeaketa administratiboa Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateari dagokio.
- Aukerarik eraginkorrena, hortaz, Lan Harremanetako GRALei dagozkien matrikulaziorako irizpideak eta arautegia ezartzea da.
- Gradu Ikasketen Zerbitzuko buruak baieztatu du teknikoki posible dela.
- Elkano ataleko eta Leioako Lan Harremanetako saileko idazkaritzekin adostu da bien artean koordinatuko dutela GRALen gaiak eta zuzendaritzak esleitzeko prozesua, baita defentsak egiteko eskabideen kudeaketa, GRALen baliozkotzea eta epaimahaien kudeaketa ere.

MATRIKULAREN EPEAK

Gradu bikoitzeko ikasleek arlo bietako GRALetan egin beharko dute matrikula ohiko deialdian, Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu ikasleek bezalaxe, ondorio administratiboetarako Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateari baitaude atxikita.

GRALen matrikulatzeko, ikastegiak bi deialdi egingo ditu:

- Ohiko deialdia uztailean, matrikularako epe orokorrean.
- Ezohiko deialdia urrian, aurreko ikasturtean matrikulatuta egon arren ikasturte horretan lana defendatu ez duten edo suspenditu duten ikasleentzat, baita ikasketei berriro heldu dieten ikasleentzat ere.

BI GRALAK MATRIKULATZEKO BALDINTZAK

Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu GRALen indarrean dauden irizpideak ezarriko dira gradu bikoitz honetan ere: hau da, titulazioa bukatzeko beharrezkoak diren kreditu guztietan matrikulatu beharko da ikaslea.

IRAKASLE TUTOREA ETA GAIAREN ESLEIPENA

Orain arteko prozedura aldatzeko ahalegina egingo da 2023-24 ikasturterako, eta automatrikula prozesuan ikasleek beraiek aukeratu ahal izango dute GRALaren gaia eta tutorea. Matrikulazio epea hasi aurretik, behar besteko aurrerapenaz, Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduaren eta Negozioen Kudeaketako Graduaren ardura duten sailek tutoreen eta gaien zerranda bidali beharko dute Leioako Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateko idazkaritzara, bakoitzari dagokion kuota proportzionala kontuan hartuta, gradu horien ikasketa planean bakoitzak daukan pisuaren arabera. Sailek bermatuko dute bi hizkuntza ofizialetan asetzen dela lanen eskaria.

- Matrikula formalizatu aurretik, eskura dagoen eskaintza ezagutzera emateko,

sailek eskaintzen dituzten gaiak argitaratuko dira hartarako bideratutako espazio birtualetan, ikasleek beraiek gaia hautatu eta esleipena egin ahal izan dezaten.

- GRAL bien kasuan, gaiaren eta tutorearen esleipena ikasturte baterako izango da, salbu eta tutoreak idatziz adierazten badu aurreko ikasturtean esleitutako GRALa zuzentzen jarraitzeko asmoa duela.

Ezohiko deialdian matrikulatzen diren ikasleek automatrikularako aldian hautatu ez diren gaien artean aukeratu beharko dute gaia eta tutorea. Ezohiko deialdian matrikula egiten duten ikasleen hurrenkera batez besteko notaren arabera izango da.

GRAL GORDAILUTZE ETA DEFENTSA

- Gradu bikoitzean hautazko krediturik ez dagoenez, GRAL bien defentsarako eskaria egiteko baldintza izango da ikasleari gehienez nahitaezko 18 kreditu falta izatea gradu bikoitza amaitzeko, bi graduetak GRALei dagozkien kredituak kontuan hartu barik (12 eta 6 hurrenez hurren), Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduan eskatzen denarekin (12) proportzioan.
- GRALak ADDI akademikoa aplikazioaren bitartez aurkeztuko dira, zeina, aurreikuspenen arabera, Leioako Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean ezarrita egongo baita.

DEFENTSAREN ESKABIDEA

- GRAL bien defentsaren eskabidea GAURen bitartez izapidetuko da, eta tutoreak defentsarako txostena igoko du.
- Ikasleek ADDI akademikora igoko dute lana eta tutoreek baliozkotuko dute.
- Elkano ataleko idazkariak Negozioen Kudeaketako GRALaren defentsarako deialdien daten berri emango dio Lan Harremanetako idazkariari, ikasleek defentsa eska dezaten eta Elkanoko irakasleek eskaria baliozkotu eta dagokion txostena igo dezaten.
- Idazkaritza biek elkarren artean koordinatu beharko dute GRAL bien defentsarako egutegia, aldi berean izan ez daitezen.

EPAIMAHAIK

- Negozioen Kudeaketako idazkariak epaimahaikideen eta GRALen defentsak egiteko daten berri eman beharko dio Lan Harremanetako idazkariari.
- Lan Harremanetako idazkariak aktak egingo ditu.

GRALA ADDI GORDAILU PUBLIKORA IGOTZEA

Ikastegiak GRAL bat ADDI gordailu publikora igotzea proposatzen badu, ikasleak baimena sinatu beharko du alde aurretik.

5. ERANSKINA GRALaren plagioari buruzko adierazpenaren eredia

Deiturak:

Izena:

NAN zk.:

Lanaren izenburua:

Irakaslea:

Honen bidez ADIERAZTEN DUT egin dudana originala dela, nik neuk sortu eta idatzi dudana oso-osorik, eta bertan jasota dauden testu, grafiko, taula, datu edo material guztien iturriak (internet barne) behar bezala aipatuta daudela, dagokion formatuan, jabetza intelektual eta industrialari buruz indarrean dagoen legedian jasotakoa betez eta erabilera akademikoei behar bezala erreparatuz, irakasleak adierazi didanari jarraiki.

Horrela jasota gera dadin eta dagokion ondorioak izan ditzan, dokumentu hau sinatzen dut behean adierazita dagoen data eta lekuan.

Leioa/Gasteiz, 20...(e)koaren (e)(a)n

